

Kultura Klasikoaren IV. Tailerrak

2011. Euskadiko Antzerki Grekolatinoaren XV Jaialdia

Martxoaren 28an, Bilboko Alhondegian



Aurkezpena

Urtero Kultura Klasikoaren Tailerrak Bilbon ospatzen den Euskadiko Antzerki Grekolatinoaren gazte Jaialdiaren barruan garatzen dira, aurten hamabostgarren argitaraldira heltzen dira eta Tailerrak laugarrenera. Skené, bi iharduera honeen erakunde antolatzaileak, kultura grekolatinoa bere aspektu kultural, teknologiko eta zientifikoa modu praktiko baten erakusteko asmoa du.

Era berean, partaideak gaur eguneko ezagute akademikoaren abar ezberdinei dagokien ezagutzak erabilitzea da helburu nagusia, honeek ezagutza guztiak erlazionatuta dagozala ulertzeko antolatutako ihardueretan sartuz: zientzia, kultura, teknologia, mitologia, debora, etab. mundu klasikoan eta gurean, gaur eguneko fokatzeko multidiziplinar bat deitzen dena.



Laburbilduz, gazteek benetan gure kulturaren oinarria bizirik dagoen zerbait moduan ulertzea eta tailerrak mundu ezezagun baina orain garenaren oinarriaren erakustoki modura erabili ahal izatea funtsezko helburua da.

2008. urtean eta lehen aldiz “***Physis et logos***” eta “***Tempore Capto et Ludi Mythologici***” tailerrak egin ziren, aurten tailer berri bat zabalduko da, “***Quotidiana Consuetudo***”, mundu klasikoaren bizimoduaren tailerra.

Tailer bakoitzeko programa eta iharduerak aurrerago daude xehetasunez azalduta eta aurkeztutako ihardueren Memorian gure tailerren lehen urteko garapen guztia dago baita.

Prosophon, Jaialdi guztien erakunde koordinatzailearen barruan dagoen beste jaialdien programa.

Ihardueraren deskribapena

Aurten ***Tailerrak martxoak 28***-an, astelehena, ***Bilboko Alhondegian*** egin dira eta jaialdiaren ***antzeslanak Campos Eliseos Antzokian***, Alhondegiaren oso hurbil. Hiru mahai jarri dira Atarian antolatutako tailer bakoitzeko.

Hamar gaztek parte hartu dute tailer bakoitzean ordu beteko saioetan, guztira 90 ikasle egon dira goizean, ikastetxe ezberdinetik etorritakoak (***IES Escultor Daniel*** eta ***IES Inventor Coisme García*** Logroñotik, ***IES URBI BHI*** Basauritik eta ***IES Miguel de Unamuno BHI*** Bilbotik). Hauek jaialdiko antzeslanen bat ikusi duten ikastetxeetakoak izan behar dira derrigorrez. Aurten, Plautoren “***La Cestita***”, Euripidesen “***Medea***” eta Walcotten “***Pasaje a Ítaca***” aurrez alde irakurrita eta gelan landuta euki dute.

Arratsaldean, lehen aldiz, edozein pertsonentzat irekita izan da.

Tailerak euskeraz eta gaztelaniaz izan dira. Tailer bakoitzeko arduradun legez **ERREALKUBO** kultur taldeko monitor bat eta irakasle bat egon da. Apainketa eta janzkera mundu klasikoan girotuta egon dira.

Tailerren koordinatzaileak **M^a Jesus Ramirez**, Basauriko Urbi BHIko Kultura Klasikoaren irakaslea, **Cipriano Fontanilla**, Prosophon erakundeko koordinatzailea, eta **Julen Sarasola**, Bilboko Miguel de Unamuno BHI-ko Fisika eta Kimika, eta Astronomiako irakasleak dira.

Tailerren deskribapena

PHYSIS et LOGOS

Tailer honen helburua gaur egungo zenbait jakinak ikastea da, zeintzuk mundu grekoen eta naturaren lehenengo filosofoen ezagupenetatik eratorri izan diren.

Tailerra honako alderdietan antolatuta dago:

1.-Erakusgarria eta Informagarria:

Mundu grekoen zientzia eta naturaren lehendabiziko filosofilariei buruz.

2.-Manipulagarria:

- * Dentsitatearekiko saiakuntzak eta bere kalkulua. Ezagupen honi buruzko gaur egungo aplikazioak.
- * Matematikarekiko ihardunketak: Π ("pi") eta Φ ("fi") zenbakien kalkulua.
- * Palankak edo zatagarekiko saiakuntzak. Katapulten erabilera eta jaurtiketako angelua emaitzak hobetzeko.
- * Arkitekturarekiko lanak: erromatar arkuen eraikikuntza.
- * Elementu kimikoen antolakuntza eta sailkapena.
- * Optika, mekanika eta astronomiako lanak.
- * Arkimedesen Torlojuaren azterketa.



3.-Ludikoa:

Grekoen ezaugupen zientifikoekiko lotuta dauden jarduketak, saiakuntzak eta jokuak; tresna matematikoak nahiz fisiologiaren ezaugupena erabiliz.

4.-Ikaslearen Gida, esperientzia ezberdinak azaltzen dituen koaderno, ebazteko ariketekin eta tailerren egiten diren ihardunketa.



TEMPORE CAPTO et LUDI MYTHOLOGICI

Aintzinasunetik gizakiak izan duen denbora neurtzeko premia eta hortik tresna ezberdinek hura neurtzeko, geuk hemen mundu klasikoa ezagutzeko erabiliko dugu.

Horregaitik, aintzinasunean denbora neurtzeko modu ezberdinen hurbilpena eta bizitzarako neurketa honek duen garrantzia da helburu nagusia: nekazaritza, politika, jaiak, etb...

Tailerra honako alderdietan antolatuta dago:

1.-Panel Erakusgarriak Eta Informatiboak, ondorengoari buruz:

* Denbora neurtzeko modua:

Orduak, egunak, asteak, nundinae, hilabetak, urteak.

Egutegi greziarrak eta erromatarrak.
Erlojuen bilakaera eta denboraren neurketa. Erloju ezberdineko erreproduzioak eta maketak.

* Atenasko Haizearen Dorrearen ikerketa (I.m K.A.): haize horratza, eguzki erlojua, klepsidra,....

* Denbora eta mitologia:

Denborarekiko erlazonaturiko jaungoikoak: Nyx, Hemera, Hésperos, Cronos, Eos, Selene, Helios...
Erlojuetako mitologia pasadizoen adierazpenak.
Haizeak eta beraien adierazpenak.

* Hiztegia eta denbora: Denborari buruzko latinezko esaldiak eta adierazpenen bilketa.

* Mendeko pertsona baten eguneroko denbora Erroman. Erromako pertsonai tipikoen eguneroko eginkizunaren antzezpena: matrona, senadorea, gladiadorea, gudaria,...



2.-Panel Manipulatiboak, honako hau egiteko:

* Egutegi greziarra eta erromatarra eraikitzeko.

* Denboraren lerroan erloju mota bakoitza kokatu, kronologikoki dagokion tokian, irudia eta dagokion azaltzen duen testuarekin erlazonatuz.

* Denborarekiko erlazonaturiko jaungoikoen koadro genealogikoa.

3.-“Tempore Capto” Tailerra:

* Parteartzaileek panelak bertan montatzeko aukera izango dute eta bertan eraikiko dituzte eguzki erlojuen maketak. Gainera denborarekin zerikusi duten ihardunketen bilduma emango zaie ikastetxean tailer honekin jarraitu ahal izateko.

* Eguraldi egokia izatekotan, eraikitako eguzki erlojuak, nahiz Durangoko Astronomia Gelako eguzki erloju ezberdinak ere, tokiko ordua neurtzeko eguzkitan orientatuko dira.

4.-Ikaslearen Gida, Orrazketa klasiko zein janzkera mota ezberdinen indentifikaziorako ariketa praktikoak.



QUOTIDIANA CONSUETUDO

Tailer hau DBH (3^o eta 4^o mailak) eta Batxilergo (1^o eta 2^o mailak) bigarren zikloko ikasleentzat da.

Tailer honen helburua aintzinako munduaren janzkera mota ezberdinak ezagutzea eta bai gizonezko bai emakumezko jantzi bat egitea eta “Opus Tellesatum” mosaiko klasikoaren motak zein teknika ezagutzea da.

Licenciado Poza, 31 – 7^o. 48011 Bilbao. Tfno. 94 442 06 98. skenetatroclasico@gmail.com

Licenciado Poza, 31 – 7^o. 48011 Bilbao. Tfno. 94 442 06 98. skenetatroclasico@gmail.com

Tailerra honako alderdietan antolatuta dago:

1.-Erakusgarria eta Informagarria:

Janzkera, orrazketa klasiko motak eta mosaikoei buruz.

2.-Manipulagarria:

- * Ehunezko jantzi bat egiteko gai izatea.
- * Kartulinarekin ereinotz-korua prestatzeko gai izatea.
- * Ileordeak direla medio, emakumezko orrazketa klasikoa apaintzea.
- * Mosaiko klasikoa lantzea teselez edo ispilu-paperez.

3.-Ikaslearen Gida, Orazketa klasiko zein janzkera mota ezberdinen indentifikaziorako ariketa praktikoak.

